



EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA BIOMASA HORNITZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KONTRATAZIO ZENTRALAREN BIDEZ (ESP. X18041)

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea izango da biomasa hornitzea esparru akordiora atxikitako entitateen instalazioetarako (entitateak agiri honen eranskinean zerrendatuta daude).

Eranskin horretan adierazten dira urtean erosi nahi diren kopuruak. Kopuru horiek azken urteko kontsumoen arabera kalkulatu dira eta orientazio modura hartu behar dira; beraz, ez dute inolako erosketa konpromisorik sortzen.

Kontratazioa esparru akordio baten bidez egingo da, enpresa bakarra hautatuko da eta kontratuaren termino guztiak jasoko dira bertan; hala, esparru akordioa sinatutakoan, atxikitako entitateek akordio horretatik eratorritako kontratuak esleituko dituzte, beste lizitazio bat egin behar izan gabe.

2. BIOMASAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Biomasa erregaia EN PLUS arauaren (ISO 17225-2) araberako egur pelletak izango dira edo zerbait baliokidea.

Kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa esleipendunak kalitate ziurtagiria aurkeztu beharko du, hala eskatuz gero, eta bertan azaldu beharko du fabrikazio prozesuan zehar egindako saiakuntzen emaitza, aurreko araudian xedatutakoaren arabera.

3. HORNIDURAREN BALDINTZAK

Entitateek enpresa esleipendunari egingo dizkiote beren hornidura eskaerak, eta enpresak, gehienez ere, bi egun balioduneko epean egin beharko du entrega, 8:00etatik 14:00etara bitartean.

Enpresak biltegiratze puntuan (biltegiratzeko silo edo tobera) entregatuko du produktua, entitate eskatzaileak produktua jasotzeko izendatuko duen pertsona bertan dela.

Produktua behar bezala entregatzen dela bermatzeko, deskarga pneumatikoa duten zisterna-kamioak erabiliko dira.

Enpresa esleipendunak egiaztatuko ditu hornitu beharreko siloen betetze-ahokak, kasu bakoitzean beharrezkoak izan daitezkeen egokitze elementuak jartzeko.

Hornitzaileak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu deskarga egiteko langileak, pertsonak edo ondasunak arriskuan jarri gabe; hala, eragindako kalteen konponketa edo konpentsazioa



haren kontura izango da. Halaber, kontuz arituko da kanpora hondakinik ez isurtzeko, eta enpresa hornitzailearen ardura izango da sor daitezkeen hondakinak garbitzea.

Siloak bete ondoren, garraio-agiri bat entregatuko da, gutxieneko informazio hau jasoz:

- Entrega egin zaion entitatea.
- Zentroa.
- Entrega eguna eta ordua.
- Entregatutako kopurua.
- Hornitutako produktuaren identifikazioa.
- Produktuaren jatorrizko instalazioa.
- Oharrak.
- Hornidura egin duen langilearen eta entitateko arduradunaren identifikazioa eta sinadurak.

Horrez gain, hornidura bakoitzean pisatzearen egiaztapen agiri bat entregatuko da, zamadun kamioiaren eta kamioi hutsaren arteko aldea izango dena.

Enpresa esleipendunak xurgatze ekipo bat izango du, beharrezkoa izanez gero siloak hustu ahal izateko.

Donostia, 2018ko abenduren 27a
ZERBITZU OROKORRETAKO BURUA

Sin.: Francisco José Pérez Domingo





ERANSKINA

ATXIKITAKO ENTITATEAK ETA HORNIDURA ZENBATETSIA

ENTITATEA	ENTREGA PUNTUAK	URTEKO KONTSUMOA GUTXI GORABEHERA
Gipuzkoako Foru Aldundia	3	86.000 kg
Eibarko Udala	1	30.000 kg
Errenteriako Udala	1	32.000 kg
Oñatiko Udala	1	20.000 kg
Uliazpi	1	170.000 kg
Urnietako Udala	1	30.000 kg
Guztira		368.000 kg



PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA EL SUMINISTRO DE BIOMASA A TRAVÉS DE LA CENTRAL DE CONTRATACIÓN FORAL DE GIPUZKOA (EXPT. X18041)

4. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto de contrato será el suministro de biomasa para las instalaciones de las entidades adheridas al acuerdo marco que se relacionan en el Anexo de este pliego.

En el mencionado anexo, se indican las cantidades anuales que se prevén adquirir. Éstas están calculadas en base a los consumos del último año y deben tomarse como orientativas, por lo que no suponen compromiso de compra.

La contratación se tramita mediante un acuerdo marco, seleccionándose una única empresa y fijándose todos los términos en el mismo, de forma que, una vez formalizado el acuerdo marco, las entidades adheridas adjudicarán sus correspondientes contratos derivados sin necesidad de una segunda licitación.

5. CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS DE LA BIOMASA

El combustible de biomasa será de pellets de madera según norma EN PLUS (ISO 17225-2) clase A1, DIN Plus, equivalente o superior.

Durante la ejecución del contrato, la empresa adjudicataria deberá aportar, si se le solicita, certificado de calidad donde figure el resultado de los ensayos durante el proceso de fabricación, conforme a lo establecido en la normativa anterior.

6. CONDICIONES DEL SUMINISTRO

Las entidades cursarán sus pedidos de suministro a la empresa adjudicataria, quien deberá hacer la entrega en un plazo máximo de 2 días hábiles, en horario de 8:00 a 14:00 h.

El producto será entregado por la empresa en el punto de almacenamiento (silo o tolva de almacenamiento), en presencia del personal designado para su recepción por la entidad solicitante.

Para garantizar la correcta entrega del producto, el suministro se realizará mediante camiones cisterna con descarga neumática. Además, el camión contará con sistema de pesaje para verificar la cantidad (kg) entregada.



La empresa adjudicataria verificará las bocas de llenado de los silos a abastecer, de forma que cuente y coloque en cada caso los elementos de adaptación que fueran necesarios.

El suministrador adoptará las precauciones necesarias para realizar la descarga sin peligro para operarios, personas o bienes, siendo a su costa la reparación o compensación por cualquier daño causado. Así mismo, se cuidará de que no se viertan residuos al exterior, correspondiendo a la empresa suministradora la limpieza de los residuos que se pudieran generar.

Una vez hecho el llenado, se entregará un albarán con la siguiente información mínima:

- Entidad a la que se entrega.
- Centro.
- Fecha y hora de la entrega.
- Cantidad entregada.
- Identificación del producto suministrado.
- Instalación de procedencia del producto.
- Espacio para observaciones.
- Identificación y firmas del operario suministrador y del responsable de la entidad.

Además, en cada suministro se entregará un ticket de verificación del pesaje por diferencia del peso del camión en vacío y con carga.

La empresa adjudicataria dispondrá de un equipo de aspiración para poder vaciar los silos en caso de necesidad.

Donostia / San Sebastián, 27 de diciembre de 2018

EL JEFE DE SERVICIOS GENERALES

Fdo: Francisco José Pérez Domingo





ANEXO

ENTIDADES ADHERIDAS Y ESTIMACIÓN DE SUMINISTRO

ENTIDAD	PUNTOS DE ENTREGA	CONSUMO ANUAL APROX.
Diputación Foral de Gipuzkoa	3	86.000 kg
Ayuntamiento de Eibar	1	30.000 kg
Ayuntamiento de Errenteria	1	32.000 kg
Ayuntamiento de Oñati	1	20.000 kg
Uliazpi	1	170.000 kg
Ayuntamiento de Urnieta	1	30.000 kg
TOTAL		368.000 kg

